

XEDAPEN OROKORRAK

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

564

HUTSEN ZUZENKETA, honako agindu honena: «Agindua, 2011ko abenduaren 22koa, Osasun eta Kontsumoko sailburuarena, Osasun eta Kontsumo Saileko eta Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren datu pertsonalen fitxategiak arautzen dituena».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikuluan xedatzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Era horretako hutsak aurkitu dira Osasun eta Kontsumoko sailburuaren 2011ko abenduaren 22ko Aginduaren testuan (2012ko urtarrilaren 12ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 8. zk.). Agindu horren bidez, Osasun eta Kontsumo Saileko eta Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren datu pertsonalen fitxategiak arautzen dira. Hori dela-eta, dagokien zuzenketa egiten da hemen.

2012/174 (65/2) orrialdean, honela dio:

«3. artikulua.– Fitxategien helburua.

Agindu honetan araututako fitxategiak, fitxategi bakoitzari dagokion eranskinetan adierazitako helburuetarako izateaz gain, estatistikak egiteko ere erabiliko dira. II. eranskinean jasotakoek, gainera, osasun publikoaren helburuetarako, azterketa epidemiologikorako eta osasun-arloko ikerketarako ere erabiliko dira. Datuak tratatzeko Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hura garatzeko arauetan xedatutakoa hartuko da kontuan».

Baina honela esan behar du:

«3. artikulua.– Fitxategien helburua.

Agindu honetan araututako fitxategiak, fitxategi bakoitzari dagokion eranskinetan adierazitako helburuetarako izateaz gain, estatistikak egiteko ere erabiliko dira. I. eranskinean jasotakoak, gainera, osasun publikoaren helburuetarako, azterketa epidemiologikorako eta osasun-arloko ikerketarako ere erabiliko dira. Datuak tratatzeko Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hura garatzeko arauetan xedatutakoa hartuko da kontuan».

2012/174 (65/3) orrialdean, erdarazko testuan, honela dio:

«4.– La Viceconsejería de Calidad, Investigación e Innovación Sanitaria y la Dirección de Régimen Jurídico, Económico y Servicios Generales del Departamento de Sanidad y Consumo, así como la Dirección de Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo, dentro del ámbito de sus respectivas competencias, podrán celebrar convenios de colaboración para el tratamiento de

datos con estricto cumplimiento de lo señalado en la Ley Orgánica 15/1999 y su normativa de desarrollo sobre las garantías y protección de los titulares de los datos».

Baina honela esan behar du:

«4.– La Viceconsejería de Calidad, Investigación e Innovación Sanitaria y la Dirección de Régimen Jurídico, Económico y Servicios Generales del Departamento de Sanidad y Consumo, así como Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo, dentro del ámbito de sus respectivas competencias, podrán celebrar convenios de colaboración para el tratamiento de datos con estricto cumplimiento de lo señalado en la Ley Orgánica 15/1999 y su normativa de desarrollo sobre las garantías y protección de los titulares de los datos».